

GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k**HERNANIKO ETA USURBILGO UDALERRIETAN SELEKTIBOKI JASOTAKO
BIO-HONDAKINEN TRANSFERENTZIA ZERBITZUA BURUTZEKO KONTRATUA**

Hernanin, 2016ko uztailaren 11n.

AGERTU DIRA

Alde batetik, XABIER ARREGI IPARRAGIRRE jauna, GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ko lehendakaria, NAN/DNI-zka. 15.968.340-S duena, eta ENERITZ GURRUTXAGA GOGORTZA andrea, GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ko kudeatzailea eta NAN/DNI-zka. 44.145.740-T duena.

Bestetik, Ignacio Eguiguren Urbistondo jauna, TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L.ren ordeztu eta NAN/DNI-zka. 44.151.459-S duena.

ESKU HARTZEN DUTE

XABIER ARREGI IPARRAGIRRE jaunak, lehendakari gisa, GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ren izenean eta ordeztu; kontratuaren esleipen honetarako baimenduta dagoelarik Administrazio Kontseiluak 2016ko ekainaren 16an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

ENERITZ GURRUTXAGA GOGORTZA andreak, bere karguarengatik GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ren izenean; kontratuaren esleipen honetarako baimenduta dagoelarik Administrazio Kontseiluak 2016ko ekainaren 16an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

Ignacio Eguiguren Urbistondo jauna TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L. enpresaren izenean eta ordeztu; (enpresa honen helbidea Portuetxe 83, 3º Oficina 5 20018 Donostia da eta IFK/CIF-zka B20951810), enpresaren erabakiaren arabera.

Bi aldeek kontratu hau egiteko nahikoa lege-gaitasun aitortzen diote elkarri, eta horretarako

AZALDU DUTE**Aurrekari administratiboak**

Kontratazio-espeditentia, aurrekontua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak 2016ko martxoaren 17an egindako bilkuran onartu zituen Garbitania Zero Zaborreko Administrazio Kontseiluak. Baldintza Agiri horien kopiak kontratuaren osagai gisa sartzen dira.

Administrazio Kontseiluak, 2016ko ekainaren 16an burutu bilkuran, aurkeztutako eskaintzetan puntuazio gehien jasotakoak, TRAEKO MEDIOAMBIENTAL S.L. enpresak aurkeztutakoak, baldintza guztiak betetzen zituela eta beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu zuela eta aipatu enpresari kontratua esleitzea erabaki zuen.

Enpresa horrek azken bermea zerbitzua eman ahal izateko baimen guztiak izan eta jakinarazten zaioenetik 10 laneguneko epean ezarri du, bermea 1.742,00€koa delarik.

KLAUSULAK

1.- TRAEKO MEDIOAMBIENTAL S.L. enpresak Hernaniko eta Usurbilgo udalerrietan selektiboki jasotako bio-hondakinaren transferentzia zerbitzua emango dio Garbitaniari, zorrotz betez Administrazio Klausula Partikularren Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian, baita kontratistaren proposamenean dauden espezifikazioak ere.

2.- Garbitania Zero Zabor S.M.k aipatu enpresari, Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren 6garren klausulan zehaztutako eran eginiko eskaintzaren arabera ordainduko dio, 67,00 €/ bidaiako, gehi 6,70€ %10ko BEZari dagozkionak.

3.-Kontratu honen gehienezko iraupena urte betekoa litzateke.

Kontratuaren amaieran, Garbitania Zero Zabor S.M.k horrela eskatuz gero eta gehienez urte beteko aldi batean (Administrazio Kontseiluak horrela onartuz gero), esleitura zerbitzua luzatzera behartuta legoke, esleitu berri batek lan hauek burutzeko konpromisoa hartzen duen arte.

4.- Bi aldeak beharturik daude kontratu hau betetzera, baita Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria eta kontratistaren proposamenean dauden espezifikazioak; eta horietan ezarri gabeko guztian, Sektore Publikoko Kontratu Legeak eta Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrak ezarritako aginduetara makurtuko dira espresuki, baita administrazio-zuzenbideko arau orokorretara eta, horrelakorik ezean bakarrik, zuzenbide pribatukoetara.

Eta adostasunaren frogagisa, bi aldeek bi ale izenpetuko dituzte goian aipaturiko lekuan eta egunean.



Ignacio Equigoren Urbistondo
TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L.



Xabier Arregi Iparragirre
Eneritz Gurrutxaga Gogortza
GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.



GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k
HERNANIKO ETA USURBILGO UDALERRIETAN SELEKTIBOKI JASOTAKO
BIO-HONDAKINEN TRANSFERENTZIA ZERBITZUA KONTRATATZEKO
ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA





Aurkibidea

| | |
|--|----|
| I. kapitulua.- XEDAPEN OROKORRAK | 5 |
| 1.- KONTRATUAREN XEDEA..... | 5 |
| 2.- LIZITAZIO ETA HAUTAKETA PROZEDURA ETA ERA | 5 |
| 3.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA | 5 |
| 4.- KONTRATUAREN IRAUPENA..... | 5 |
| 5.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA | 5 |
| 6.- LIZITAZIO PREZIOA..... | 6 |
| 7.- ORDAINTZEKO ERA | 6 |
| 8.- PREZIOEN BERRIKUSTEA..... | 6 |
| 9.- BEHIN BETIKO BERMEA | 6 |
| 10.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA .. | 6 |
| II. Kapitulua.- KONTRATAZIOA..... | 7 |
| 11.- KONTRATATUA IZATEKO GAITASUN ETA KAUDIMENA | 7 |
| 12.- DOKUMENTAZIOA ADMINISTRATIBOA ETA PROPOSAMENEN AURKEZPENA | 8 |
| 13.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK | 9 |
| 14.- ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA..... | 10 |
| 15.- KONTRATUA FORMALIZATZEA..... | 11 |
| III. Kapitulua.- KONTRATUA GAUZATZEA | 11 |
| 16.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK..... | 11 |
| 17.- KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK..... | 11 |
| 18.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA..... | 12 |
| 19.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATU BITARTEAN HIRUGARRENGOEI EGINDAKO KALTEENGATIK..... | 12 |
| 20.- KONTRATUAREN ALDAKETAK..... | 12 |
| 21.- EKIPAMENDUA ETA BALIABIDE PERTSONALAK..... | 12 |
| 22.- BALIABIDE TEKNIKOAK..... | 12 |
| 23.- LANEN KONTROLA | 12 |
| 24.- LANAK ONARTZEA..... | 12 |
| 25.- ZIGORRAK KONTRATISTARI KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK..... | 13 |
| 26.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK..... | 13 |
| 27.- DATU PERTSONALAK BABESTEA..... | 13 |
| 28.- KONTRATAZIO-ORGANOA | 13 |



I. kapitulua.- XEDAPEN OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea, agiri teknikoan jasotako irizpide eta lehiaketa prozesuaren ondoren esleituak aurkeztu eskaintzan jasotako xehetasunen oinarri hartuta, Garbitaniak Usurbilen eta Hernanin biltzen duen eta udalerrri horietako garbiguneetan kokatuak dauden San Markoko mankomunitatearenak diren organikoaren kontainerrean bildutako organikoa jaso, San Markoko tolban hustu eta kontainer bakoitza berriro ere garbiguneetan hutsik birkokatzeko zerbitzuaren kontratazio gisa definitzen da.

Pleguek kontratu izaera izango dute.

2.- LIZITAZIO ETA HAUTAKETA PROZEDURA ETA ERA

Kontratuaren lizitazioa eta esleipena PUBLIZITATERIK GABE PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ egingo dira, 3/2011 Errege dekretu legegileko 174, e) artikuluan ezarritako kasua baita.

Eskaintzen eskaria gutxienez kontratatuak izan daitezkeen hiru enpresei luzatuko zaio.

3.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Gardentasuna eta Garbitaniak duen kontratazio jardueraren inguruko informaziora sarbide publikoa erdiestearren, eta beste publizitate bideak erabiltzea kaltetu gabe, lehiatzaileek Garbitania Zero Zabor S.M.ren kontratazio profilerara sarbidea izango dute honako helbide elektronikoa: www.garbitania.com

4.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Asteroko lan bolumenari dagokionez, lizitazio honetan urteko Usurbildik 104 deskarga (52*2) eta Hernanitik 156 deskarga (52*3) aurreikusi dira. Deskarga horiek kontratua sinatzen denetik urte bateko epean astero zerbitzatuak izango direlarik.

Prozedura honetan biltzen den zerbitzu honek hasiera kontratua sinatu eta hurrengo egunean izango du eta urte beteko luzapena izango du.

Bilketaren maiztasuna udalerriko: plegu teknikoetan azaltzen den moduan burutu beharko da.

Kontratuaren amaieran, Garbitania Zero Zabor S.M.k horrela eskatuz gero eta gehienez urte beteko aldi batean (Administrazio Kontseiluak horrela onartuz gero), esleitua zerbitzua luzatzera behartuta legoke (1 urte), esleitu berri batek lan hauek burutzeko konpromisoa hartzen duen arte.

5.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuan ezarritako lehen urtearen gehienezko balio zenbatetsia 17.680,00 €-koa da (HAMAZAZPI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEI ERUO), horri BEZaren %10 gehituko ziolarik 1.768,00€ (MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI EUO). Luzapenaren urtearen gehienezko balio zenbatetsia 17.680,00 €-koa da (HAMAZAZPI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEI ERUO), horri BEZaren %10 gehituko ziolarik



1.768,00€ (MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI EURO).

Beraz, orotara, bi urteen gehienezko balio zenbatetsia 35.360,00 €-koa da (HOGEITA HAMABOST MILA HIRUEHUN ETA HIRUROGEI EURO), honi %10eko BEZa gehituko zaiolarik 3.536,00 €, beraz guztira luzapena eta BEZa gehituz, gehienezko balio zenbatetsia 38.896,00€koa da (HOGEITA ZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO). Formulutzen diren eskaintza ekonomikoek ezingo dute zenbateko hori gaintitu.

6.- LIZITAZIO PREZIOA

Kontratuan ezarritako gehienezko lizitazio prezioa 68,00€/bidaiako da (HIRUROGEITA ZORTZI EURO), honi %10eko BEZa gehituko zaio (6,80€ SEI EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO). Beraz orotara lizitazio prezioa gehienez 74,80€/bidaiako (HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO/BIDAIKO) izango da. Formulutzen diren eskaintza ekonomikoek ezingo dute zenbateko hori gaintitu.

Prezioan kontratu honen xede diren lanak egitearen ondorioz sortuko diren gastu eta zerga guztiak sartuta daudela interpretatuko da.

7.- ORDAINTZEKO ERA

Ordainketa honela egingo da, dagokion faktura aldeztetik aurkeztu eta onartuta:

- Hilero tona eta garraioen likidazioa egin ostean ordainketa legeak jasotako epeetan ordainduko dira, beti ere igorritako fakturaren data egunetik aurrera kontatuaz.

8.- PREZIOEN BERRIKUSTEA

Zerbitzuaren maiztasunean aldaketarik egongo balitz prezio unitarioa ez litzateke berrikusiko, aldiz, deskarga puntua 20km edo gorako desbideratzea egongo balitz (gora edo behera) prezio unitarioa berrikusi eta egokituko litzateke.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA

Bere gain hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko, kontratuaren esleipenduna beharturik dago behin betiko bermea aurkeztera, esleitze-zenbatekoaren %5koa. (BEZ kanpo).

Berme hori aurkezteko epea hamar lanegunekoa izango da, errekerimendua hartu eta biharamunetik zenbatuta, eta 3/2011 Errege dekretu legegilearen 96. artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz egin ahal izango da hori.

Bermea itzultzea, 3/2011 Errege dekretu legegilearen 102. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, berme-epea amaitu ondoren (zerbitzua amaitu eta 1 hilabetera) eta esleipendunak bere kontratuzko betebeharrak guztiak bete ondoren.

10.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuaren prestaketari, esleipenari, ondorioei, betetzeari edo iraungitzeari lotutako edozein arazori dagokionez, jurisdikzio zibilean soilik jarri ahal izango da errekurtsua.

Horretaz gain, sinatutako kontratuen ondorioen, betearazpenaren eta iraungitzearen inguruan gerta litezkeen desadostasunak konpontzeko, arbitrajera jo ahal izango da, abenduaren 23ko 60/2003 Legearen xedapenen arabera.



II. Kapituluua.- KONTRATAZIOA

11.- KONTRATATUA IZATEKO GAITASUN ETA KAUDIMENA

Prozedura negoziatu honetan, aldez aurretik Garbitania Zero Zabor S.M.k gonbidaturiko, pertsona natural nahiz juridikoek parte har dezakete, espainiar nahiz atzerritarrek, jarduteko gaitasun osoa izan, kontratatzeke debekurik ez badute, eta ekonomia, finantza, tekniko eta lanbide-arloan beren kaudimena egiaztatzen badute.

1.- Enpresarien jarduteko gaitasun osoa honela ziurtatuko da

a) Enpresaburua pertsona juridikoa baldin bada, eraketa-eskitura edo agiria, estatutuak edo fundazio-egintza aurkeztuta, horietan beren jarduera erregulatzen duten arauak agertzen badira, eta dagokion Erregistro Publikoan behar bezala inskribatuak egon behar dute (pertsona juridikoaren baitako erregistroan). Era berean Identifikazio Fiskalaren Zenbakia, ordezkararen NANaren kopia eta ordezkari legez ari bada baita horretarako ahalorde askietsia ere.

b) Enpresaburuak espainiarrak ez direnean baina bai Europako Erkidegoko kide diren estatuetakoko kideak, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, dagokien Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, edota zinpeko adierazpena edo ziurtagiri bat aurkeztuz, arauz ezarritakoaren arabera, Europar Erkidegoan aplikatu beharreko xedapenen arabera.

2.- Enpresaburuek, Azaroaren 14ko 3/2011 Erret dekretu legegileak onartutako eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 60. Artikuluan jasotako kontratatzeke debekurik ez dutela ziurtatzeko bideak honako hauek izango dira:

a) Kontratatzeke debekuetan sartuta ez dagoela dioen aitortpena (II. **eranskina**). Aitortpen honetan indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta langileekiko betebeharrak (Gizarte Segurantzak) egunean dituen adierazpena ere sartuko da.

3.- Enpresaburuaren kaudimena

Ekonomia eta finantza-kaudimenaren justifikazioa 3/2011 Errege dekretu legegileak 75. artikuluan ezartzen duenaren arabera egingo da, ondorengo agiriak aurkeztuz:

a) Kontratuaren xedeak jasotzen duen zerbitzu motan eta gonbidapenean zehazten den zenbateko balioetsiaren balio bera (urtekoa) edo handiago duen urteko negozio bolumena.

4.- Enpresaburuaren kaudimen tekniko eta profesionala

Kaudimen tekniko eta profesionalaren justifikazioa 3/2011 Errege dekretu legegileak 78. artikuluan ezartzen duenaren arabera egingo da, ondorengo agiriak aurkeztuz:

- Kontratuaren xedean jasotzen den bio-hondakinaren kontainer bidezko garraioan azken bost urteetan egindako gutxienez lan baten deskribapena, hor sartuta lan horien zenbatekoa, datak eta horien hartzaile publiko eta pribatuak.



Baztertuta geratuko dira kontratuaren xedean zehazten diren egitekoak eginak dituztela egiaztatzen ez duten enpresen eskaintzak.

12.- DOKUMENTAZIOA ADMINISTRATIBOA ETA PROPOSAMENEN AURKEZPENA

1.- Eskaintzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Enpresa elkartuek ezingo dute banakako proposamenik aurkeztu eta, hori egiten badute, ez zaizkie onartuko ez banakakoak eta ez elkar-tearenak.

2.- Proposamen guztiak dagokien sarrera erregistroko dokumentuarekin aurkeztuak izango dira (I eranskina).

3.- Proposamenak aurkezteko **epea gonbidapena jaso eta hurrengo egunetik hasita 15 egun naturaletara** amaituko da. Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko bulego nagusietan aurkeztu behar dira (Lastaola poligonoa 3- A12 eraikina – Ereñotzu Auzoa 20120- Hernani. Gipuzkoa), bertan sarrerari erregistroa emanaz.

4.-Enkante-eskaintzaileak bere proposamena postaz bidaltzen badu, Postetxean bidalketa egin duen eguna justifikatu behar du eta egun berean eskaintza bidali duela jakinarazi posta elektronikoz (kudeaketa@garbitania.com). Bi baldintza horiek ez baldin badira betetzen edo bidali izanaren berri ematen duen jakinarazpena proposamenak jasotzeko jarritako epea amaitu ostean jasotzen bada, eskaintza hori ez da onartuko.

Dena den, jarritako epea igaro eta hurrengo hamar egun naturalak igaro ostean ez bada proposamena jaso, orduan ez da kasu batean ere onartuko.

5.-Eskaintza baten aurkezpenak, enpresaburuarengandik Plegu honetan jasotako klausulen erabateko onarpena suposatzen du.

6.- Negoziazioan parte hartzeko eskaintzak ITXITAKO, HAUTAGAIK SINATUTAKO ETA JAKINARAZPENAK JASOTZEKO HELBIDEA ZEHAZTUTAKO BI GUTUN-AZAL ITXITAN aurkeztuko dira. Gutun azal hauetan, era berean, gutun-azalaren IZENDAPENA eta "Publizitaterik gabe negoziaturiko prozedura Garbitania Zero Zabor S.M.k Hernaniko eta Usurbilgo udalerrietan selektiboki jasotako bio-hondakinen transferentzia zerbitzua kontratatze" testua adieraziz. Gutun-azalen izendapena honakoa da:

- A GUTUN-AZALA: Dokumentazio administratiboa
- B GUTUN-AZALA: Eskaintza ekonomikoa eta dokumentazioa

Gutun-azaletan sartutako dokumentuek orginalak edo indarrean legediaren arabera balioztatutako kopiak behar dute izan.

Gutun-azal bakoitzean, sartutako dokumentuen zerrenda zenbakituaz gain honako dokumentazioa aurkeztuko da:

A GUTUN-AZALA

- Administrazioarekin Kontratatzeke legeak ezarritako baldintzak betetzen dituenaren enkante-eskaintzailearen aitopene arduratsua. IV. Eranskinean jasotako ereduaren baitan egingo da.



B GUTUN-AZALA

- Proposamen ekonomikoa Baldintza Agiri honen III.ERANSKIN gisa agertzen den ereduari estu atxiki beharko zaio. Agiri honetan kontsignaturiko prezioetan kontratu honek eragindako edo eragingo dituen gastu guztiak egon behar dute sartuta.
- Kontratazio mahaiari negoziatzeko eremuan sartzen diren beste gainontzeko arloen balorazioa ahalbideratzen duten dokumentuak (arloteknikoen hobekuntzak). Lizitatuzaileek aurkeztu beharreko Txosten Teknikoak ahalik eta gehien zehaztuko du nola gauzatu kontratu honen xede diren lanak:
 - Zerbitzua eskaintzeko ekipoaren deskribapena: ibilgailu mota eta langileak. (ikus plegu teknikoetako 3 eta 4. puntuak)
 - Bilketa egun eta ordutegia. (ikus plegu teknikoetako 3.4. puntua)
 - Esleipendunaren instalazio finkoetan edukiko diren erreserbako ibilgailuak eta ibilgailuen aberia nahiz programatutako geldialdietan zerbitzua zehaztutako egutegi eta ordutegian emateko aurreikusitako Jarraibideen Plana.
 - Zerbitzua hobeto deskribatzeko beharrezko datu guztiak.

13.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak, garrantzi handienekotik txikienera zerrendatuta eta egozten zaien ponderazioaren arabera, honako hauek dira:

1.- Eskaintako prezioa 60 puntu.

Onarturiko proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioa honela burutuko da:

- Eskaintzarik ekonomikoenak gehienezko puntuazioa izango luke (60 puntu)
- Lizitazioan jasotako prezioak zero puntu
- Gainontzeko eskaintzen puntuazioa aurreko bi baldintzen arabera sortutako portzioaren arabera kalkulatuko dira.

Parte-hartzaileekin aipaturiko irizpide horiei buruz negoziatu daiteke, baita zentzu estuan kontratuaren xedeari dagokion edozein alderdi ekonomiko, tekniko edo/eta logistikori buruz ere.

2.- Proposamen teknikoak: 40 puntu. (garbiketa ahalmena, gestioa, berrikuntzak.Hobekuntzak)

| | |
|--|---|
| Isurketen aurrean garbiketa ahalmena | Ibilgailu propioa: 15puntu Ibilgailua alokeran: 5 puntu |
| Ezaugarri orokorren inguruko hobekuntzak | Kudeaketa eta zerbitzuan proposatutako hobekuntzak gehienez 10 punturaino |

| | |
|--|---|
| | baloratuko dira eta berauek Garbitaniako teknikoek baloratuko dituzte zerbitzuaren kalitatea kontutan hartuaz. |
| Matxura edo istripu kasuetan containerra ordezkatzeko ahalmena | Container propioa/ alokairuarengatik prezioa: Gehienez 15 puntu Containerra alokeran/ alokairuarengatik prezioa : Gehienez 5 puntu |

14.- ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA

Egindako proposamenak ikusita eta, hala balegokio, parte-hartzaileekin beharrezko negoziazioak burututa, kontratazio mahaiak arrazoitukoaren arabera, segida beherakorrean sailkatuko ditu aurkezturiko proposamenak, Baldintza Agiri honetan ezarritako esleitze-irizpideen arabera eta Garbitaniako Administrazio Kontseiluaren esku utziko ditu, berak hartuko baitu azken erabakia eta berak ezarriko baititu kontratuaren azken zehaztasunak.

Garbitaniako Administrazio Kontseiluak hartu erabakia, berak izendatutako pertsonak kudeatuko du. Pertsona honek, onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen eskaintzaileari hamar laneguneko epea emango dio honako agiriak aurkez ditzan:

- Plegu hauetako 11. puntuan jasotako baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duten dokumentuak.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dituen ziurtagiriak.
- Kontratu gauzatzera dedikatu edo atxikitza konprometitu den baliabideak benetan badituela ziurtatzen dutenak.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko dokumentazioari dagokionez honakoak:
 - Enpresak hartu duen prebentzioaren antolaketa moduaren ziurtagiria
 - Lan arriskuen ebaluazioa, bere jarduerari dagokionez
 - Beraien lanpostuan aritzeko langileen mediku-gaitasun ziurtagiriak (osasun zaintza).
 - Langileek, egiten duten jarduerari buruzko beharrezko informazioa eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - Langileen lanpostuen jardueretarako beharrezkoak diren Norbera Babesteko Ekipamenduen entrega ziurtagiria eta hauek erabiltzeko beharrezko informazioa eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - Lanak egingo dituzten langileen zerrenda
 - Langileen TC2 eta TC2 kotizazio agiriak eta Gizarte Segurantzari kuotak ordaintzen direla ziurtatzen duten agiriak
- Erantzukizun zibileko polizaren kopia. Bere estaldura gutxienez 300.000 eurokoa izango delarik.
- Ibilgailuen seguruen kopia.
- Behar den kasuan enpresa elkartuaren eratzearen ziurtagiri legala



- Era berean EJZn kontratuak duen helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela ziurtatu beharko du, horretarako alta edo azken errezioboaren aurkeztu beharko duelarik.
- Behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duen agiria.
- Deskribatutako hondakina garraiatzeko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailak Hondakin eta Lur kutsatuen 22/2011 Legean jasotako aktibitateak aurrera eramateko beharrezkoak diren baimen eta erregistroen jabetzan dagoela ziurtatzen duten agiria

Dokumentazio hori behar den epean jaso bada esleitutzat emango da kontratua.

15.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Garbitaniako organo eskudunak esleipena egin eta hori jakinarazi ondoren, kontratua administrazio-dokumentuan formalizatu behar du. Esleipendunak gehienez ere hamabost laneguneko epean, kontratuaren sinatzea burutu behar du eta agiri hori aski titulu izango da edozein erregistro publikotara iristeko.

Kontratistari egozteko moduko arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatzen aipaturiko epearen barruan, Garbitaniak suntsiaraztea erabaki dezake, baita behin betiko bermea bahitu edo konfiskatzea ere.

Kontratua formalizatzeko ekitaldi berean, kontratua izenpetzeaz gain, esleipendunak Administrazio Klausula Berezien Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria izenpetuko du, horrela agertuz baduela horien berri eta ados dagoela.

Kontratua formalizatzea ezinbesteko betebeharra izango da edozein ordainketa bideratzeko.

III. Kapitulua.- KONTRATUA GAUZATZEA

16.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK

1.- Kontratuaren esleipendun den pertsona, enpresa edo Enpresen Aldi Baterako Elkartea behartuta dago hitzartutako lanak ezarritako epeetan egitera.

2.- Lanak onarturiko Baldintza Agiriak, aplikatzekoa den araudi orokorra eta, nolana ere, kontraturiko lanen izaerari dagozkion erregela teknikoak zorrotz beteta egin behar dira.

3.- Esleipenduna, egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango da.

17.- KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Lan arloan, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan 31/1995 Legeak —azaroaren 8koak, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoak— araututa indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu kontratistak, berea bakarrik izango delarik lan-istripuen inguruko erantzukizun osoa.

Kontratistak ez baditu betebeharrak hauek betetzen, Garbitaniak ez du inolako erantzukizunik izango.



18.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Kontratuaren xede den zerbitzu-ematearen eremuan segurtasun eta osasunaren erantzulea kontratista denez, aplikatzekoak diren arau juridikoak eta teknikoak beteko ditu.

Garbitania Zero Zabor S.M.k eskubidea izango du prebentzio-arloan egokia iruditzen zaion dokumentazioa eskatzeko kontratuak irauten duen bitartean.

19.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATU BITARTEAN HIRUGARRENGOEI EGINDAKO KALTEENGATIK

3/2011 Errege dekretu legegileak 214. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratista izango da kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz sortzen diren kalteen erantzulea.

20.- KONTRATUAREN ALDAKETAK

Garbitaniak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoagatik edo ustekabeko kausak sortzen direnean, eta kontratistak ez du inolako kalte-ordainetarako eskubiderik izango, betiere 3/2011 Errege dekretu legegileak 105etik 108 bitarteko artikuluetan ezartzen duenaren kalterik gabe.

Zerbitzuaren maiztasunean aldaketarik egongo balitz prezio unitarioa ez litzateke berrikusiko, aldiz, deskarga puntua 20km edo gorako desbideratzea egongo balitz (gora edo behera) prezio unitarioa berrikusi eta egokituko litzateke.

21.- EKIPAMENDUA ETA BALIABIDE PERTSONALAK

1.- Kontratistak proposaturiko tresneria eta baliabide pertsonalekin egin behar ditu lanak, une oro erantzunez lan horien martxan sortzen diren premiei.

2.- Lan, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu kontratistak, eta Garbitaniak ez du inolako erantzukizunik izango kontratistak ez baditu betetzen.

22.- BALIABIDE TEKNIKOAK

1.- Kontratistak bere proposamenean sartutako baliabide teknikoak ere jarri behar ditu eta, oro har, lanak ongi gauzatzeko beharrezko guztiak.

2.- Eskaintzan sartutako baliabide teknikoak ordeztzeko, Garbitaniak onespena eman behar dio, aurrez proposamen justifikatua aurkeztuta.

23.- LANEN KONTROLA

Lanak eta batez ere materialaren kalitate kontrolak Garbitaniako ekipo teknikoaren parte-hartzearekin egingo dira.

24.- LANAK ONARTZEA

1.- Kontratuaren xede den prestazioa amaitzen denetik gehienez ere 30 egun naturaleko epean bere onarpenaren egintza formal eta positiboa egingo da.

2.- Entregaturiko lanek ez badituzte onartzeko behar diren baldintzak betetzen, dagozkion aginduak emango zaizkio esleipendunari aurkitutako akatsak zuzen ditzan eta horretarako ezarritako epean bere obligazioak bete ditzan, eta agindu horiek bete



arte ez zaizkio lanak onartuko. Emandako epean ez baditu aginduak betetzen, kontratua deuseztatu egingo da eta fidantza galduko du.

25.- ZIGORRAK KONTRATISTARI KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK

A) KONTRATUA GAUZATZEKO EPE OSOA

Kontratista, berari dagozkion arrazoiengatik, atzeratu egiten bada kontratua betetzeko zuen epe osoa betetzen, Garbitaniak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, kontratistak bermea galduko duelarik, edota eguneko zigorra ezar diezaioke kontratistari: 0,20 € kontratu-prezioaren 1.000 euro bakoitzeko.

Berandutzagatiko zigorrak kontratu-prezioaren %5eko multiplora iristen diren bakoitzean Garbitaniak ahalmena izango du erabakitzeko kontratua suntsiaraztea, kontratistak bermea galduko duelarik, edota zigor berriak ezarriz kontratua gauzatzen jarraitzea.

B) PRESTAZIOEN GAUZATZE PARTZIALA

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehazturiko prestazioen epe partzialak bete ez baditu, Garbitaniak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, kontratistak bermea galduko duelarik, edota zigorra jar dezake: kontratuaren prezio osoaren %10ekoa.

26.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak 3/2011 Errege dekretu legegileak , 223. eta 308. artikuluetan ezarritakoak dira.

27.- DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Kontratua betetzeko tratamendu automatizatuak duten datu pertsonalak erabili behar baditu enpresa esleipendunak, hori abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (datu pertsonalen babesari buruzkoak) ezarritakoa betez egingo da.

Kontratuari esker lortu dituen datu pertsonal automatizatuak Garbitaniak agindutakoaren arabera tratatuko ditu enpresa esleipendunak, eta ezingo ditu aplikatu edo erabili kontratuan agertzen den helbururako baizik, ezta laga ere beste pertsona batzuei, nahiz eta gordetzeko izan.

Enpresa esleipendunak, kontratuaren xedapenak bete gabe, beste helburu baterako bideratu, jakinarazi edo erabiltzen baditu datuak, horien tratamenduaren erantzuletzat joko da, eta horrela berak erantzun beharko du egin dituen lege-hausteei buruz.

28.- KONTRATAZIO-ORGANOIA

Kontratazio organoa Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseilua izango da.

Prozeduraren tramitazioa aurrera eramateko Kontratazio Mahaia ahalmentzen da, bere konposaketa kontratazio organoak berak izendatuko duelarik. Azterketa, aholkularitza, proposamen eta sostengu teknikoak Kontratazio Mahaiak burutuko dutelarik.



EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau GARBITANIA ZERO ZABOR S.L.
Administrazio Kontseiluak onartu zuen, 2016ko martxoaren 17an egindako bilkuran.

Hernanin, 2016ko martxoaren 17an.

LEHENDAKARIA

GERENTEA



ERANSKINA:

I PROPOSAMENA ERREGISTROAN AURKEZTEKO MODELOA

.....jaunak/andereak,NAN zenbakidunak, bere izenean edo, horrela bada, enpresaren izenean eta ordez, (honek egoitza soziala.....(e)n eta CIF-IFK-zka. duelarik) eta helbide elektronikoa duenak zera

ADIERAZTEN DU:

..... egunean eta orduan, "Garbitania Zero Zabor S.M.k Hernaniko eta Usurbilgo udalerrietan selktiboki jasotako bio-hondakinen transferentzia zerbitzua kontratatzeko" abian jarri duen lehiaketan parte hartzeko proposamena jasotzen den 2 gutunak aurkeztu dituela.

Hernanin, 2016koen.....an.

Aurkezlearen sinadura



II KONTRATATZEKO DEBEKUAN SARTUTA EZ DAGOENAREN AITORPENA

(eredu honen aurkezpena derrigorrezkoa da).

..... jaunak/andereak, NAN zenbakidunak, bere izenean edo, (adierazi ordezkaritza mota: administrari bakarra, apoderatua...) , enpresaren izenean eta ordez, (honek egoitza soziala.....(e)n eta CIF-IFK-zka. duelarik) zera

ADIERAZTEN DU:

Bere erantzukizunpean adierazten duela berak ordezkatzen duen enpresa ez dagoela, indarrean dagoen legeriaren arabera, kontratuak egiteko debeku-kasuetan sartuta.

Bera eta ordezkatzen duen enpresa zerga eta Gizarte Segurantzak ezarritako betekizunetan egunera daudela.

Eta behar den tokian behar diren efektuak izan ditzan aitopen ahu sinatzen duen 2016kon.....n.

Sinadura eta enpresaren zigilua



III PROPOSAMEN EKONOMIKOA-EREDUA

..... jaunak/andereak adinez nagusia,(e)n bizi dena eta N.A.N-zka..... duena),
.....(r)en izenean eta ordez (honek egoitza soziala.....(e)n eta CIF-IFK-zka. duelarik) zera

ADIERAZTEN DU:

Lehena.- Ezagutzen dituela GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.K HERNANIKO ETA USURBILGO UDALERRIETAN SELKTIBOKI JASOTAKO BIO-HONDAKINEN TRANSFERETNZIA ZERBITZUA KONTRATATZEKO Administrazio-Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak.

Bigarrena.- Bere erantzukizunpean adierazten duela berak ordezkatzen duen enpresa ez dagoela, indarrean dagoen legeriaren arabera, kontratuak egiteko debeku-kasuetan sartuta, badituela behar hainbat gaitasun juridiko eta bitarteko aipaturiko lanak egiteko eta betetzen dituela kontratu honetarako eskatzen diren baldintza espezifikoak.

Hirugarrena.- Esleipendun gertatuz gero, onarturiko Agirietako baldintza eta betebeharrei zorrotz jarraituz egingo dituela lanak.

Laugarrena.- Aipaturiko lanak guztira prezio honetan egitera konprometitzen dela:

1)(letraz eta zenbakiz).....euro/bidaiako, gehi.....€, BEZaren %ari dagozkionak.

(Data eta sinadura)

IV.- AITORPEN ARDURATSURAKO EREDUA "A GUTUN-AZALA"

..... jaunak/andereak adinez nagusia,.....(e)n jakinarazpenetarako helbidea duena eta N.A.N-zka duenak,(r)en izenean eta ordezkari (honek egoitza soziala.....(e)n eta CIF-IFK-zka. duelarik), lehiaketan parte hartzen duenak,ren aurrean

BERE ARDURAPEAN HONAKO HAU AITORTZEN DU:

LEHENENGOA.- Hernaniko eta Usurbilgo udalerrietan selektiboki jasotako bio-hondakinen transferentzia zerbitzua kontratatzeke prozesuan parte hartzeko asmoa duela.

BIGARRENA.- Hernaniko eta Usurbilgo udalerrietan selektiboki jasotako bio-hondakinen transferentzia zerbitzuaren esleipenduna izateko Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 146. Artikuluko lehen atalean jasotako aurretiazko baldintza guztiak betetzen ditudala, zehazki ondorengoak:

- Izaera juridikoa badudala eta behar den kasuan ordezkapenerako ahalmena dudala.
- Enpresa behar bezala klasifikatuta dagoela, edo bere kasuan, beharrezko kaudimen ekonomiko, finantziero, tekniko eta profesionalak ditudala.
- Azaroaren 14ko 3/2011 Errege dekretu legegileak onartutako eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 60. Artikuluan jasotako kontratatzeke debekurik ez dudala ziurtatzen dut, eta zerga eta Gizarte Segurantzak ezarritako betekizunetan egunera daudela.
- Kontratuaren inguruan zuzenean edo zeharka sor litekeen edozein gorabeheretarako Espainian edozein mailatako auzitegi eta epaitegien eskumenean jartzen garela adierazten dut, eta, atzerrian izan dezakedan foru jurisdikzionalari uko egiten diogula. (Atzerriko enpresen kasuan).
- Jakinarazpenak egiteko posta elektronikoen helbideadela., (lehentasunezko bidea izango da).

HIRUGARRENA.- Esleipendun gisa proposatua izanez gero edo berau horrela eskatua izango balitz, aitorpen honen bigarren puntuan jasotzen diren baldintzak betetzen dituela adierazten duten dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen duela.

Dagokion lekuan baliozkoa izan dadin, aitorpen hau sinatzen dut

.....n, 201 ko,reann.



Aitortzailearen sinadura,,

Snta.: _____»

GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k
HERNANIKO ETA USURBILGO UDALERRIETAN SELEKTIBOKI JASOTAKO
BIO-HONDAKINEN TRANSFERENTZIA ZERBITZUA KONTRATATZEKO
AGIRI TEKNIKOA



Aurkibidea

| | |
|--|----|
| 1. - AGIRI TEKNIKOAREN HELBURUA..... | 22 |
| 2. – LURRALDE EREMUA | 22 |
| 3. – ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA..... | 22 |
| 3.1. Bildu beharreko hondakinak | 22 |
| 3.2.-Bilketaren modalitatea | 22 |
| 3.3. Bildu beharreko hondakinen kopurua..... | 24 |
| 3.4. Bilketa maiztasuna, egutegia eta ordutegia..... | 24 |
| 3.5. Bilketaren beste alderdi batzuk..... | 25 |
| 3.6. Bio-hondakinaren garraioa | 25 |
| 4. – ZERBITZUAREN ANTOLAKETA..... | 26 |
| 5. – LANEN GAINBEGIRATZEA | 26 |

1. - AGIRI TEKNIKOAREN HELBURUA

Agiri honen xedea ondorengo da: Hernaniko eta Usurbilgo udalerrietan gaika bildutako bio-hondakinaren garraio zerbitzua kontratatzeko oinarri gisa erabiliko diren hainbat baldintza tekniko zehaztea.

Zerbitzuaren laburpena honakoa da: Garbitania Zero Zabor S.M.k Hernaniko eta Usurbilgo udalerrietan biltzen duen eta udalerrri horietako garbiguneetan kokatuak dauden eta San Marko mankomunitateko jabegoak diren bio-hondakinarentzako kontainerrean bildutako organikoa jaso, eta San Markoko tolban hustu eta kontainer bakoitza berriro ere garbiguneetan hutsik birkokatzea.

2. – LURRALDE EREMUA

Agiri honetan deskribatzen diren garraio lanak Hernaniko eta Usurbilgo udalerrietara mugatuko dira.

3. – ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Zerbitzu honen lanetan, Garbitania Zero Zabor S.M.-k utzitako bio-hondakinak transferentzia edota tratamendu-zentroraino garraiatzera arte beharrezkoak diren eragiketa guztiak sartuko dira.

3.1. Bildu beharreko hondakinak

Hernaniko eta Usurbilgo udalerrietan Garbitania Zero Zabor S.M.-k atez ateko gaikako bilketan jasotako bio-hondakinak dagokien edukiontzietan deskargatu ondoren, Mankomunitateak zein Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Garbitaniari agindutako tokian deskargatu beharko dira. Egun, San Markoko transferentzia gunera garraiatu beharko dira. Zerbitzuaren esleipendunaren betebeharra izango da zerbitzua ematea Garbitania Zero Zabor S.M.-k ezarritako egutegi, maiztasun eta ordutegiarekin bat, honek esleitutako zerbitzuaren prezioan aldaketarik suposatu gabe.

Zerbitzuaren esleipendunak ez ditu jasoko hondakin mota ezberdinen nahasketa heterogeneoak dituzten bio-hondakinak.

3.2.-Bilketaren modalitatea

Kontainerrak garraiatzea izango da zerbitzu honen modalitatea.

Ez bada bio-hondakinaren egoera zuzena esleipendunaren funtzioa izango da zerbitzuari dagokion udalerriko atez ateko informazio bulegoari jakinaraztea.

Garbitania Zero Zabor S.M.-k gaika bildutako bio-hondakina gutxienez 20m³-ko kontainer batean hustuko dute bilketarako ekipok. Kontainer hori San Markoko mankomunitateak ezarri eta bere jabegokoa izango da eta ezaugarri hauek ditu:

- Gantxoaren bidez kamioiak heltzeko aukera izango du.
- Euriak barruko karga ez bustitzeko toldo bat izango du
- Ondorengo argazkietan agertzen da egun dagoen edukiontzia eredu:



Hala ere, San Marko mankomunitatearen edukiontzi hauek aldatzea gerta daiteke, horiek kargatzeko ibilgailuaren aldaketa suposatuko ez lukeelarik.

Arestian aipatu gisa, garraiatutako kontainerrak San Marko Mankomunitatearenak izanik berak adierazi gisa erabiliak izango dira. Erabilera okerrarengatik matxurarik edo hausturarik sortuko balitz kontainerretan honela jokatu da:

- Erabilera desegokia eta matxuraren ardura Garbitaniaren langileena izan bada Garbitania egingo da konponketaren kostearen kargu.
- Erabilera desegokia eta matxura esleipendunarena bada kostuaren kargu esleipenduna egingo da. Edozein kasutan, esleipendunak matxuraren berri ahal bezain pronto emango dio Garbitaniari.

Baldintza klimatikoak direla eta urtaro jakin batzuetan (udara eta udazkenean bati-bat) Usurbilgo garbigunean usainen arazoak sortuko balira, larunbatetan Hernanikoaz gain Usurbilgo organikoa ere garraiatuko litzateke (14:30etatik aurrera), Usurbilgo garraioen maiztasuna astean bitik hirura pasatuaz (Garbitaniako teknikoek horrela erabakiz gero). Nolanahi ere, maiztasuna bere onera etorriko da aldaketa eragin duten baldintzak desagertzean.

Zerbitzuaren maiztasunean aldaketarik egongo balitz prezio unitarioa ez litzateke berrikusiko, aldiz, deskarga puntua 20km edo gorako desbideraketa egongo balitz (gora edo behera) prezio unitarioa berrikusi eta egokituko litzateke.

Bio-hondakinez betetako kontainerren garraioa ibilgailu egoki baten bidez egingo da, eskaintzaileak proposatu eta arrazoituko duen gisan.

3.3. Bildu beharreko hondakinen kopurua

Azken hilabeteotan udalerrri bakoitzetik bidaia bakoitzean garraiatutako bio-hondakin kopurua honakoa izan da:

HERNANI

2015ean bidaia bakoitzean garraiatutako tonak: Media, maximoa eta minimoa

| Bidaia egunak | Bidaiako Tn media | Bidaiako Tn minimoa | Bidaiako Tn maximoa |
|---------------|-------------------|---------------------|---------------------|
| Astelehena | 8,89 | 6,9 | 12,04 |
| Osteguna | 12,67 | 8,26 | 14,28 |
| Larunbata | 7,81 | 5,24 | 11,32 |

Datu hauek ez dira mugatzaileak eta beraz, kontratuaren epealdian alda daiteke, ohiko funtzionamenduan izan daitezkeen igoera edota jaitsieretan oinarrituta.

USURBIL

2015ean bidaia bakoitzean garraiatutako tonak: Media, maximoa eta minimoa

| Bidaia egunak | Bidaiako Tn media | Bidaiako Tn minimoa | Bidaiako Tn maximoa |
|---------------|-------------------|---------------------|---------------------|
| Astelehena | 8,05 | 5,02 | 10,04 |
| Osteguna | 6,03 | 4,34 | 7,20 |

Datu hauek ez dira mugatzaileak eta beraz, kontratuaren epealdian alda daiteke, ohiko funtzionamenduan izan daitezkeen igoera edota jaitsieretan oinarrituta.

2015ean eginiko bidaia kopuruak honakoak izan dira:

| | Urta. | Otsa. | Mar. | Api. | Mai. | Eka. | Uzta. | Abuz. | Ira. | Urri. | Aza. | Abe. |
|---------|-------|-------|------|------|------|------|-------|-------|------|-------|------|------|
| Hernani | 14 | 12 | 13 | 13 | 13 | 13 | 13 | 14 | 12 | 14 | 13 | 13 |
| Usurbil | 9 | 8 | 9 | 9 | 8 | 9 | 9 | 9 | 8 | 10 | 9 | 9 |

3.4. Bilketa maiztasuna, egutegia eta ordutegia

Esleipendunak Garbitaniak esandako egunak eta ordutegiak errespetatu beharko ditu. Edozein kasutan, zerbitzua astean hirutan eskainiko da, eta aldaketarik ezean astelehen, ostegun eta larunbat, beti bio-hondakinaren atez ateko gaikako bilketa zerbitzua amaitu ondoren. Arrazoi ezberdinak medio zerbitzua egunez aldatu behar balitz esleipendunak onartu egin beharko du.

Gaur egun, bio-hondakinen gaikako bilketa zerbitzua astean hirutan burutzen du Garbitaniak. Usurbilgo udalerrian astelehen, ostegun eta larunbat goizetan. Hernaniko udalerrian igande, asteazken eta ostiral gauek hurrengo eguneko goizera arte.

Garbitania Zero Zabor S.M.ren esku geratzen da kontratatutako bilketa maiztasuna handitzea, zerbitzu egoki bat bermatzeko.

Esleipendunak proposatu eta Garbitania Zero Zabor S.M.k onartutako egutegia zorrozki errespetatu eta bete beharko da. Jaiegunetan ere zerbitzua normal emango da, kasu bakoitzean Garbitania Zero Zabor S.M.k emandako argibideekin bat.

Kontainerren biltze ordutegia gaikako bilketa zerbitzuaren lanordura moldatuko da, egun bakoitzean jasotako bio-hondakin guztiaren garraioa egiteko. Gaur egun, bio-hondakinaren gaikako bilketa zerbitzua ondorengo orduetan amaitzen da egoera normaletan eta horietatik aurrera burutu beharko litzateke euren garraioa:

| | Usurbil | Hernani |
|-------------|---------|---------|
| Astelehenak | 14.30 | 14.30 |
| Ostegunak | 14.30 | 14.30 |
| Larunbatak | - | 9.00 |

Kontrolagarriak izan ez diren kanpo faktoreengatik bilketa amaiera ordua atzeratuko balitz, zerbitzua Garbitaniak azken deskarga burutu ostean egingo litzateke. Beti ere Garbitaniak esleipendunari abisua pasatuko diolarik aurretiaz.

3.5. Bilketaren beste alderdi batzuk

Kontainerren garraio zerbitzuak horiek jaso baino lehen, barnekoa ondo bereizita dagoela egiaztatu beharko du. Helburua hondakinak modu egokian entregatzea da.

Bilketa zerbitzuak hondakin desegokiak dituen karga bat hautematen badu, beti bildu baino lehen atez ateko informazio bulegoari jakinarazi beharko dio edozein erabaki hartzeko eta bertan aztertu ondoren esaten zaiona egin beharko du.

Esleipendunak zerbitzua egitean kontuan izango du, kontainerrak manipulatzeko dituen gunea ez zikintzeko. Manipulazio eragiketetan isurtzen diren hondakinak garraiorako langileek berehala erretiratuko dituzte.

Esleipendunak ordutegia zorrozki betetzen dela zaindu beharko du. Ordutegia ezinbesteko arrazoirik gabe behin eta berriz betetzen ez bada, Garbitania Zero Zabor S.M.k plegu administratiboetan xedatutakoari jarraiki, zigortzeko ahalmena izango du.

Esleipendunak kontainerren jasotze eta garraio lanetan lan arriskuen prebentzio arauak betetzen direla zaindu beharko du. Horretarako, eskaintzaileek beren eskaintzetan betetzeko neurriak definituko dituzte; zehaztasun mailak nahikoa zabala eta xehea izan beharko du.

Zerbitzu honen bidez jasotako material guztia Hernaniko nahiz Usurbilgo udalaren jabetzakoa izango da ondorio guztietarako.

3.6. Bio-hondakinaren garraioa

Esleipendunak jasotako bio-hondakinak Errenteria-Oreoretako udalerrian kokatutako San Markoren instalazioetako bio-hondakinatarako transferentzia gunera garraiatu beharko ditu egun. Bere kabuz ezingo ditu esleipendunak

beste inora eraman. Hustuketa puntua Garbitaniak aginduta aldatuko da soilik, eta aldaketa hori 20 km edo hortik gorakoa bada soilik izango du prezio unitarioan berrikuspena.

Esleipendunak une oro tratamendu plantak zehaztutako arauak eta baldintzak bete eta onartu beharko ditu.

Materiala deskargatzerako garaian hondakin ez onargarriak izateagatik, hauek berreskuratzea saihestu edo zailtzen dutelako, bilketa ibilgailuen karga tratamendu zentroan atzera botatzen bada, esleipendunak bere gain hartuko ditu behar bezala kudeatu arteko gastu guztiak.

Esleipendunak beharrezko neurriak hartuko ditu garraioan zehar bio-hondakinik ez isurtzeko.

4. – ZERBITZUAREN ANTOLAKETA

Eskaintzaileek zerbitzuaren antolaketaren proiektua, bitartekoak eta langileak definituko dituzte, gutxienez honako puntuak azalduz:

- Zerbitzua eskaintzeko ekipoaren deskribapena: ibilgailu mota (fitxa teknikoa eta argazkiak) eta langileak.
- Esleipendunaren instalazio finkoetan edukiko diren erreserbako ibilgailuak eta ibilgailuen aberia nahiz programatutako geldialdietan zerbitzua zehaztutako egutegi eta ordutegian emateko aurreikusitako Jarraibideen Plana.
- Zerbitzua hobeto deskribatzeko beharrezko datu guztiak.

5. – LANEN GAINBEGIRATZEA

Garbitania Zero Zabor S.M.ren esku geratzen da kontratatutako zerbitzuen zuzendaritza fakultatiboaren eskubidea erabiltzea. Horretarako, agiri honen xedea diren lanen gauzatzea zuzendu eta gainbegiratu duten arduradun pertsona bat edo gehiago izenda ditzake. Pertsona horiek lanen burutze zuzenaz arduratuko dira eta kontratistari edo Zuzendaritzako arduradunei bideratuko dizkiete beharrezko agindu eta jarraibideak. Horri dagokionez, esleipendunak proiektuaren arduradun pertsona bat edo gehiago izendatuko ditu Garbitania Zero Zabor S.M.rekin hizketakide-lanak egiteko, gai hau idatziz komunikatu beharko delarik. Idatzian azaldu beharko dira jakinarazpenetarako izena, posta helbidea, telefono zenbakia, posta elektronikoko helbidea, etab. Aldaketarik dagoen kasuan, informazio hau eguneratu egingo da.

Esleipendunak astero honakoak igorri beharko ditu Garbitaniak agindutako helbide elektronikora: intzidentziak, garraioen informazioa gutxienez honakoa zehaztuz: pisu gordina, tara, garbia, hondakin mota, LER zenbakia, pisaketa eguna, ordua, lekua, asteko eguna kamioiaren matrikula, albaran zenbakia, langilea, hondakinen jatorria (Hernani-usurbil)), eguneroko pisaketa taulak formatu informatikoan.

Hilabetea amaitu eta lehen bost egunetan posta elektronikoz hilabete osoari dagokion eta aurreko paragrafoan zehaztutako informazio guztia excell formatoan igortzeaz gain faktura aurreratuko du, bertan herri bakoitzari eginiko bidaiak ezberdinak jasoko direlarik. Informazio hau guztia paperean hilabeteko azken egunaren ondoren 15 egunera gehienez ere igorri beharko ditu, albaran originalak gehituko direlarik.

Kontratistaren betebeharra izango da Garbitania Zero Zabor S.M.k antolatutako bileretara honek zehaztutako leku eta orduan agertzea, kontratuaren inguruan

eskatzen zaion dokumentazio guztia ematea Garbitania Zero Zabor S.M.k adierazitako epean eta baita honen langileei agiri honen xede diren zerbitzuekin erabat edo partzialki lotutako instalazio, bulego eta ekipamenduetara sarrera erraztea.

Eskatutako informazioa lantzea (inprimatzea, fotokopiatzea, euskarri informatikoan grabatzea, etab.) esleipendunaren kontu izango dira, horretarako material eta ekipoen kostuak barne.

Zerbitzu hau esleitzeko unean, esleipendun enpresak aipatu hondakinak bildu eta garraiatzeko, Hondakinei eta zoru kutsatuei buruzko 22/2011 legeak jasotzen dituen eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailak jardueran aritzeko ematen dituen baimen eta erregistroen jabe izan beharko du. Horrez gain, egungo nahiz etorkizuneko araudietatik eratorritako beharrezko baimen guztien jabe izan beharko du. Honela, beharrezkoa izango da kontratista hondakin ez arriskutsuen garraiolari gisa homologatua egotea.

EGINBIDEA.- Baldintza Teknikoen Agiri hau GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.
Administrazio Kontseiluak onartu zuen, 2016ko martxoaren 17an egindako bilkuran.

Hernanin, 2016ko martxoaren 17an.


LEHENDAKARIA


GERENTEA